

# ZINEMA (H)ABIAN / CINEMA EN CURS PROIEKTUAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA. GIPUZKOA 2019-2020

## 1. AURKEZPENA

*Zinema (h)abian / Cinema en curs* programaren Euskadiko 3. edizioan parte hartzeko deialdia ireki da. Zinemaren pedagogiari buruzko programa hori eskola eta institutu publikoetan gauzatzen da. Irakasle eta zinemagileek batera lan egiten dute lantegien garapenean, eta lan horretatik abiatuta, zinemarekiko hurbilketa bat proposatzen da, arte, kultura eta sorkuntza gisa ulertuta.

Programa ikasgelako dinamikaren barnean integratutako lan gisa garatzen da, eta irakaskuntza/ikasketako metodologia berriak barne hartzen ditu. Horiek horrela, ikasleak dira prozesuetako protagonistak, zeharka eta modu globalizatuan lanean, ikasle guztiak integratzen dituzten lan kooperatiboak sustatuz, eta abiapuntu gisa egiazko egoerak hartuz, bizi izandakoan oinarritutako ikasketa bultzatzeko. Alderdi hauek lantzen dira bereziki: hizkuntza-gaitasunak eta gaitasun artistikoak, inguruaren, behaketaren eta arretaren balioa azpimarratzea, autonomia, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa, etab.

*Zinema (h)abian / Cinema en curs* programa 3 lan-ardatzetan egituratzen da:

- Lantegiak, irakasleek eta zinemagile batek ematen dituztenak, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko I. mailara bitarteko taldeekin.
- Maisu-maistren eta irakasleen prestakuntza.
- Ikastegiaren mailan ekintzak garatzea, zinema eskola eta institutu parte-hartzaileetako hezkuntza-proiektuan zeharkako ardatz bihur dadila sustatzeko.



*Zinema (h)abian / Cinema en curs* A Bao A Qu elkartearen nazioarteko programa bat da, Gipuzkoan Tabakalerak eta Elías Querejeta Zine Eskolak garatzen dutena. Galizian, Madrilen, Txilen eta Alemanian ere egiten dute.

2019-2020 edizioan, Gipuzkoan, gehienez 2 ikastetxek hartuko dute parte (1 deialdi ireki bidez esleitu).

*Zinema (h)abian / Cinema en curs* programari buruzko informazio gehiago:

<http://www.cinemaencurs.org/eu>

<https://www.tabakalera.eu/eu/zinema-habian>

<http://zine-eskola.eus/eu/zinema-habian-cinema-en-curs>

Lantegien garapena “Lantegien egunerokoa”-ren bidez jarrai daiteke:  
<http://www.cinemaencurs.org/eu/diari-dels-tallers>

Adibidez, Lasarte-Oriako Oriarte institutuaren 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteei dagokien “Lantegien egunerokoa” ikus daiteke hemen:  
[http://www.cinemaencurs.org/es/diari-dels-tallers?centers\\_from\\_land\\_3946%5B3947%5D=3947](http://www.cinemaencurs.org/es/diari-dels-tallers?centers_from_land_3946%5B3947%5D=3947)

Eginiko filmetako batzuk ikustea ere interesgarria izan daiteke:  
<http://www.cinemaencurs.org/eu/films>

Adibidez, Trenaren hotsa, Oriarte institutuko DBHko 1. mailako taldearena:

<http://www.cinemaencurs.org/ca/node/4717>

## **2. IRAKASLEEK ETA ZINEMAGILE BATEK BATERA EMANDAKO LANTEGIAK**

*Zinema (h)abian / Cinema en curs* programa filmak eta filmen zatiak ikustearen eta zinema-sorkuntzako esperientzia sakonaren arteko loturatik abiatuta artikulatzen da. Hainbat praktika egin ondoren, talde bakoitzak fikziozko film labur bat edo film labur dokumental bat sortzen du. Ikasleak dira prozesu guztien egileak, eta prozesuak taldean garatzen dira.

## Nori zuzentzen zaizkie?

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko 1. mailara bitarteko ikasleei.

## Nork ematen ditu?

Lantegiak irakasle talde batek eta zinemagile batek ematen dituzte batera. Zinemagileak, gutxi gorabehera, 25 saiotan parte hartzen du ikasleekin. Irakasleek aktiboki parte hartzen dute beti saio horietan, eta lanari jarraitutasuna ematen diote beste eskola batzuetan.

## Zer-nolako ekipamendua behar da?

Lantegiak *Zinema (h)abian / Cinema en curs* programak berak jarritako kamera- eta soinu-ekipo profesionalekin gauzatzen dira. Halaber, ikastetxeetako ordenagailu, proiektore eta argazki- eta/edo bideo-kamerekin lan egiten da. Ikastetxearen disko gogor bat behar da, lantegirako espezifikoki erabiltzeko.

## Modalitateak eta garapena

Lantegiek honako hauek hartzen dituzte abiapuntu: hainbat ikastetxek partekatutako praktika-programak eta ikuskatzeak, eta urteetan zehar irakasle-taldeekin eta zinemagileekin gauzatutako metodologia komuna.

Ikastetxeak hautatzeko unean, *Zinema (h)abian / Cinema en cursek* ikastetxe bakoitzarekin batera baloratzen du zein den garapen egokiena.

Ikastetxe bakoitzeko talde bakar batek parte hartzen du zinemagilearekin egiten den lantegian. Horrez gain, materialak eta metodologiak ikastetxeko gainerako ikasleei ere helarazteko lan egiten da, zinemak, arteak eta sorkuntzak leku garrantzitsua izan dezaten ikastetxearen proiektuan.

Ikastetxeak hautatzeko unean, *Zinema (h)abian / Cinema en cursek* ikastetxe bakoitzarekin batera baloratuko du lantegiaren modalitatea eta haren garapen egokia.

## Zinemagilearekin egingo diren saioen antolaketa eta ordutegia



Lantegiak ikasturte osoan zehar egingo dira (urria-ekaina bitartean), eta zinemagileak, gutxi gorabehera, 25 saiotan parte hartzen du. Saio horiez gain, irakasleek bestelako edukiak (fotografikoak edo zinematografikoak nahiz proiektuari lotutako zeharkako beste batzuk) garatzen dituzte zinemagilea gabe.

Saio bat egin behar da astean, gutxienez ondoz ondoko 2 edo 3 ordukoa; eta, gutxienez, astean beste 2 orduko dedikazioa izan beharko du taldeak. Gutxienerako ordu kopuru hori ikasle kopuruaren, ikastetxearen kokapenaren (zinemagilea haraino joan behar delako), ikastetxearen antolaketa orokorraren eta abarren arabera da.

Zinemagileak ondoz ondoko 2 edo 3 orduko saio gehienetan parte hartuko du, eta irakasleekin batera lan egingo du beti. Gero, azken horiek lanarekin jarraituko dute beste orduetan, erregulariki. Zinemagilearekin saioetan lan egingo duten irakasleak proiektuarekiko asteko gainerako dedikazio orduetan ere inplikatu dira.

Dokumentazio, plangintza, filmatze eta muntaketa prozesuetarako, lanaldi luzeagoak antolatuko dira; ikasleek taldeka egingo dute lan, txandetan. Gutxienez 12 jardunaldi luze aurreikusten dira. Taldea banatzen den une guztietan, irakasle bat egongo da beti zinemagilearekin.

Lantegiak askotariko irakasgaien esparruan gara daitezke, baita proiektukako lan-esparruetan, eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan zeharka ere.

### Lantegiaren egunerokoa

Lantegiaren egunerokoa, ikasleen hausnarketak, sorkuntza-prozesuak eta ikasturtean zehar eginiko praktikak “Lantegien egunerokoa” izenekoan argitaratzen dira (<http://www.cinemaencurs.org/eu/diari-dels-tallers>). Egunerokoen bidez, ikasleek, halaber, beste lantegi batzuetako kideekin esperientziak eta iritziak trukatzeko aukera dute.

Eduki horiek eta ikastetxe bakoitzaren egunerokoaren edizioa irakasleek kudeatzen dituzte, ikasleek sortutako testu eta materialetatik abiatuta. *Zinema (h)abian / Cinema en curseko* taldeak beharrezkoa den euskarri teknikoa jarriko du.



Deialdian izena ematen duten ikastetxeek lana gauzatzeko konpromisoa hartzen dute.

### Filmak aretoan estreinatzea

Ikasturte bukaeran, ikastetxe parte-hartzaileetako ikasleek eginiko film laburrak proiektatzeko jardunaldia antolatuko da Tabakalera. Ikastetxe guztiek parte hartuko dute jardunaldian.

### 3. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

Ikasturtean zehar, 5 saiotan banatutako prestakuntza-programa bat egingo da, iraila eta uztaila bitartean. Eduki praktikoak, metodologikoak eta instrumentalak garatuko dira, eta irakasle parte-hartzaileek esperientziak partekatuko dituzte.

Ezinbestekoa da irakasleak saio guztietara joatea proiektua behar bezala garatu ahal izateko.

Honako hau da 2019-2020 aldirako prestakuntza-egutegia:

- Uztaileko lehen hamabostaldia: proiektuarekin bat egingo duten irakasleei zuzendutako hasierako prestakuntza.
- Irailak 13 (ostirala) eta 14 (larunbata): prestakuntza La Llobeta izeneko udalekuetarako etxean (Katalunia)
- Prestakuntza-jardunaldia azaro-abenduan.
- Prestakuntza-jardunaldia urtarril-otsailean.
- Ekain bukaeran, uztail hasieran

Irakasleek eta zinemagileek lantalde bat sortuko dute, eta haien ardura izango da proposatutako eta esperimintatutako praktikei eta metodologiei buruz hausnartzea eta horiek aztertzea.

#### 4. PROIEKTUAK IKASTETXEAN DUEN ERAGINA

Lantegiak ikasturte osoan zehar garatuko dira. Ikasturte bukaeran ebaluazioaren emaitza ona bada, ikastetxeak gutxienez 3 urtez parte hartuko duela aurreikusten da. Ikastetxeak hainbat urtez parte hartzen jarraitzen badu, proposamenak, ekintzak eta metodologiak zinemagilearen lantegian zuzenean parte hartzen ez duten beste irakasle eta taldeei helarazteko konpromisoa hartzen du. *Zinema (h)abian / Cinema en curseko* taldeak hori ahalbidetzeko baliabideak eta prestakuntza emango ditu.

#### 5. ZINEMA (H)ABIAN / CINEMA EN CURS-EN LANTEGIETAN PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

##### 5.1 Betekizun orokorrak

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute Euskadiko titulartasun publikoko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek.

- Lantegiak LHko 5. mailatik Batxilergoko 1. mailara bitarteko taldeekin egin daitezke.

- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak proiektua onetsi behar du.

##### 5.2. Betebehar espezifikoak

Programaren ezaugarriek honako baldintza hauek eskatzen dituzte:

- Astean 4 ordu izatea, gutxienez; eta, horietatik 2 edo 3 ondoz ondokoak izan behar dute, astean saio bat eginez. 2-3 orduko saio horietan zinemagileak parte hartuko du normalean. Irakasleetako batek gutxienez 3 ordu astean eman behar ditu.

- Beharrezkoa denean, lanaldi luzeak egitea.

- Gutxienez 2 irakasle tartean izatea. Eta batek, gutxienez, plaza eduki behar du ikastetxean.

- Irakasleetako batek ondoz ondoko 2 edo 3 ordu horietan lan egin beharko du zinemagilearekin batera.
- Taldea banatzeko eta ikasle guztiak irakasle batekin beti egoteko aukera.
- Lantegiaren irakasle arduradunaren dedikazioaren aurreikuspena, bai ikasleekin lan egiteko bai koordinazio-lanetarako, webgunean “Lantegien egunerokoa” kudeatzeko eta gainerako lanetarako.
- Lantegiaren bidez zeharkako edukiak bideratzeko gaitasuna.
- Irakasleak prestakuntza-jardunaldietara joatea.
- Tabakalerako zinema-aretoan film baten proiektziora joatea, beste lantegietako parte-hartzaileekin batera.
- Ikasturte bukaeran lantegietako filmak proiektatzeko Tabakalera egingo den ekitaldira joatea.

### 5.3. Hautatzeko irizpideak

- Ikastetxeak espektatibak eta motibazioak edukitzea sorkuntza-prozesuei lotutako lan-metodologia berriak txertatzeko.
- Proiektuarekin eta bertatik abiatuta zeharkako lan bat artikulatzeko gaitasuna edukitzea.
- Inguruarekin loturak egiteko edo indartzeko interesa izatea.
- Hainbat irakasle eta hainbat curriculum-arlo egotea tartean.
- Zuzenean inplikaturako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen konpromisoa.
- Baliabideak, metodologiak eta proposamena gainerako taldeei zabaltzeko prestasuna eta gaitasuna izatea (bereziki parte hartzen den bigarren urtean, irakasle eta ikasle-talde gehiago tartean sartuz).

### 5.4. Irizpide osagarriak

- Ahal den neurrian, kontuan hartuko da lurralde-oreka eta ikastetxe parte-hartzaileen testuinguruen aniztasuna.
- *Zinema (h)abian / Cinema en curs* lan globalizatuko/ proiektu bidezko antolakuntza batean inskribatzea.
- Erakundeak eta tokiko erakundeak tartean sartzeko gaitasuna baloratuko da.

### 5.5. Irizpide gehigarriak

Hainbat proiektu jotzen badira interesgarri, honako irizpide osagarri hauek erabiliko dira:

- Ikastetxe oso zailak, edo testuinguru sozioekonomiko xumeetan kokatuak.
- Landa-inguruetakoko ikastetxeak, edo kultura-nukleo nagusietatik urrunduak.
- Eraldaketa pedagogikoko prozesuetan dauden ikastetxeak.

## 6. PROZEDURA

Eskaeretatik abiatuta, *Zinema (h)abian / Cinema en curseko* lantaldeak (A Bao A Qu, Elías Querejeta Zine Eskola eta Tabakalera) ikastetxeen alde zuzenaren aurreko hautapen bat egingo du, aurkeztutako dokumentazioaren eta proiektuaren 2019-2020ko helburuen arabera. Bilerak egingo ditu ikastetxe horietako bakoitzarekin, eta inplikaturako irakasleek eta, gutxienez, zuzendaritza-taldeko kide batek hartuko dute parte.

Bileren ondoren, ikastetxeak hautatzeko lehen proposamen bat egingo da.

Etap hori bukatuta, alde zuzenetik aukeratutako ikastetxeei agiri hauek aurkezteko eskatuko zaie:

- Antolakuntzako behin betiko proposamena (hezkuntza-maila, ikasle-kopurua, proiektua zein gai edo arlotan garatuko den, inplikaturako irakasleak).





- Zer oihartzun espero den izatea lantegiak ikastetxeko gainerakoengan. Curriculumeko hainbat arlo txertatzea.

- Eskola Kontseiluaren onspen-ziurtagiria.

### 6.1 Egutegia

Ikastetxeek eskaerak egitea: 2019ko maiatzaren 10etik 27ra

Bilerak ikastetxeekin: maiatzaren 29tik ekainaren 25era

Ikastetxeen azken agiriak aurkeztea: uztailaren 1ean

Ebazpena: uztailaren 5ean

### 6.2 Ikastetxeen eskaeretako dokumentazioa

*Zinema (h)abian / Cinema en curs* egitasmoan parte hartu nahi duten ikastetxeek honako dokumentazio hau bidali beharko dute, gehienez ere 4 orrialdekoa:

- Ikastetxearen aurkezpena: ezaugarriak, ibilbidea eta datozen ikasturteetarako helburuak.
- Ikastetxeak proiektuan parte hartzeko dituen motibazioak.
- Antolakuntza-proposamenen aukerak (ikasturtea, ikasle-kopurua, ordutegiak, proiektua zein gaitan edo arlotan egingo litzatekeen eta abar).
- Inplikaturako irakasleak eta irakasle horien beraien motibazioa.

## 7. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak posta elektroniko bidez aurkez daitezke, mezu elektroniko bat bidaliz [hezkuntza@tabakalera.eu](mailto:hezkuntza@tabakalera.eu) helbidera, e-mailaren gaian honako hau zehaztuz: “Deialdia: Zinema (h)abian”.

Info+:

[hezkuntza@tabakalera.eu](mailto:hezkuntza@tabakalera.eu)

943011311

[www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)